

TOKIKOM

# karkara

**Orioko eta Aiako aldizkaria**  
2010eko abenduaren 17a  
289. zenbakia. 22. urtea



## Sahara askearen aldeko oihua

Sarraski egoera bizi dute Mendebaldeko Saharan, jatorrizko lurretan. Egoera horren berri eman digu Ahmed Ziadek, Orion bizi den sahararrak.

**05**

**Orioko kontuak**

Baserrien fitxategia

**08**

**Pilota**

Galarraga txapel bila

**11**

**Aiako berri**

Gabonetako egitaraua

**25**

**Herritarra**

Beñat Herce

## PUBLIZITATEA

MASAJISTA

# Kosue

Lunbalgia  
Kontrakturak  
Eskoliosia  
Drainatze linfatikoa  
Ziatika

Abeslari kalea, 4  
Orio  
Tf: 943 57 74 26



**HARROBI ANAIAK**  
IGELTSARITZA OROKORREAN

Gremioen koordinazioa  
**GAIZKA: 687 86 24 93**  
**EKAITZ: 635 73 10 79**

**Profesionalak - Azkarrak - Merkeak**  
**Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe**  
harrobianaiaak@hotmail.com

**TANATORIO ZARAUZ**  
EUROFUNERARIAS TALDEA

**Hileta eta zerbitzu orokorrak**

- \* Donostia eta probintziako ospitaleetan
- \* Aldiaroko zerbitzua
- \* Belatorio gelak
- \* Korroiak, eskolak, trantsizioak...

Araba kalea, 35 Zarautz  
tel: 943 88 04 37 / fax: 943 88 48 48  
e-mail: harrospit@harrospit.net

**azkue**  
**karrozeria**

Libegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio  
Tf/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

**Orioko**  
**Herri**  
**Ikastola**

Guraso Kooperatiba  
ABESLARI KALEA, 8  
TEL: 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38  
orio@ikastola.net  
www.oriokoikastola.net

**estilo berria**

Ogitartekoak  
Plater konbinatuak  
Etxeko janaria  
Tintxoak

943 13 13 12  
Aitor eta Gorka

**Zaragueta**  
**Eskola Orto**

telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

**ASADOR**  
**XIXARIO**

Parko Gudarren Kalea, 2  
Tel: 943 83 91 00

**ZAPATA KONPONKETAK**

Larroguezen 1000 - 1200 eta 1000 - 1200  
LAPURDITZAKI: 09:00 - 14:00  
Herriko kooperatiba, Orto

*Sukalde eta bainuen erreformak*

**XANTI MUJIKA**  
**Igeltseritza**

699 46 76 21  
943 13 10 37

tel/fax: 943 89 00 69  
Bidaia kalea 4 - 20100 ZARAUZ

**URBIDE**

ITURGINTZA, BEROGINTZA  
GASA, BAINU ERAKUSKETA  
Preziositate, higiene eta segurtasun

**TAILER MEKANIKOIA**  
**MANTEROLA S/L**

MOZKORAK, BALBUZAK

Santiago buzea - 16 postokutira  
Tel. 943 830 743  
Fax: 943 134 634  
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net  
20 810 ORIO - GIPUZKOA

**TMM**

**AENOR**  
Eskatu  
150 9002

Eskerako balbula  
AENOR kalitate ziurtatutakoa

**URANGA**

burdindegia  
Opari, menaje eta erremateak

fer.uranga@euskalnet.net  
telex: 943 8312 36 Eusko Gudari, 3

**Sagasti**  
**LEIHOAK**

ROBERTO SAGASTI  
Tf / fax: 943 13 00 77  
sagastileihoak@telefonica.net  
Arrantzaile kalea, 68  
20810 Orio (Gipuzkoa)

**agirresarobe** ARKITEKTURA  
OSERU ETA PROIEKTUAK

ETABEZITZA ETA LOKALEN ERREFORMA PROIEKTUAK  
FATXADA ETA TITULATZEN ERABERITZE PROIEKTUAK, OSERUAK  
OSERU ZUZENDARITZAK, INFORMEAK, GRENDA KOORDINAKUNTZA

OSERU BERRIEN PROIEKTUAK, HIRIBITZTA, LURRER ELDERAKETA

OSERU AGIRRESAROBEN LORPOTEGI ARKITEKTURA  
ITURBIDE D. S. - ZARAUZ, ZARAUZ  
TEL: 635 731 722





# Abiaduran

## 1

Abiadura handian ekin  
abiadura eraiki,  
abiaduran, abiaduran  
oraindik ez degu aski.  
Abiaduran, abiaduran  
etzan ordurako jeiki,  
abiaduran, abiaduran  
Euskal Herri laua aurki.

## 2

Abiaduran, abiaduran  
hildakoak laixte zazpi,  
abiaduran, abiaduran  
Paris, Madril ta Donosti.  
Abiaduran, abiaduran  
ezer ondo, dena gaizki,  
abiaduran, abiaduran  
patrika beteak, noski.

## 3

Eztabaida ez omen du merezi  
Abiadura Handiko Trenak,  
herri guztien atzetik lortu  
dituzue ta baimenak.  
Honen aurrean ezta erraza  
lasai mantentzen barrenak,  
egin irrintzi, irten kalera  
ta osa ekintzak zuzenak.

# 289

## karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur etxea**  
20810 Orio  
943 83 15 27  
karkara@karkara.com  
www.karkara.com

**Editorea**  
Karkara taldea kultur  
elkartea

**Zuzendaria**  
Ana G. de Txabari

**Erredakzio burua**  
Lore Berasaluze

**Erredakzio taldea**  
Irati Agirreazaldegia,  
Pat Cowie,  
Miren Etxeberria, Eli Lasa  
eta Jabier Zabaleta

**Publizitatea**  
Pat Cowie

**Publizitatearen diseinua**  
Lore Berasaluze

**Testuen zuzenketa**  
Miren Etxeberria eta  
Jabier Zabaleta

**Ale honetako  
laguntzaileak**  
Manex Barrenetxea,  
Ibon Berasaluze,  
Ander Errasti, Ana Lucas  
eta Nikolas Zendoia


**Laguntzaileak**  
Iñaki Iturain eta  
Garbiñe Manterola

**Diseinua**  
Karkara taldea

**Banatzzaileak**  
Oihana Genoba eta  
Ane Murillo (Orioko)  
Eli Irureta (Aia)

**Inprimategia**  
Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.100 ale

KARKARAK ez du bere gain  
hartzeko aldizkarian  
adierazitako esanen edota  
iritzien erantzukizunik.  
KARKARAN argitaratutakoa  
berreman daiteke, osorik edo  
zatika, baldin eta iturria  
aipatzen bada.



### PUBLIZITATE PREZIOAK

#### Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

#### Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

**Publizitatea kontratatzeko Pat  
Cowierekin hitz egin (695 78 07  
20) edo karkara@karkara.com  
Prezio hauei BEZA gehituko zaie**

### LAGUNTZAILEAK

**EUSKO JAURLARITZA**

Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
hedabidea



## GUTUNAK

**Arkupe Gabonetan gertu**

Gabonak ate joka ditugun honetan, bezeroei jakinarazi nahi diegu, gure elkarreko 42 dendok kanpaina berezi bat jarri dugula abian gure dendetako produktuekin osatutako hiru otarre zozketatzeko. 42 denda horietan jarriko ditugu ikusgai produktu-sorten argazkiak eta denden zerrenda eta sortak, berriaz, Oditz zapata-dendako erakusleioan egongo dira.

Zozketa abenduaren 28an egingo dugu Orioko plazan, konpota lehiaketako sari banaketaren ondoren.

Izan ere, abenduaren 28an egingo den Sagar Egunaren harira konpota lehiaketa antolatu du Arkupek. Parte hartzaile bakoitzak gutxi gorabehera bi kilo konpota egin beharko ditu. Bi modalitatetan egin ahal izango dute: bai ohiko eran, era tradizionalan, eta baita modu berri-zaileren batean ere. Lehiakideek 18:30ak arteko epea izango dute konpotak aurkezteko eta, lau sukaldarik probatu ostean, lehiaketaren emaitza 19:00etan jakinaraziko dute. Bi sari izango dira: konpota tradizionalik onenaren egileak txapela jasoko du eta, horrez gain, 300 euroko saria, Arkupeko dendetan gastatzeko erosketa txeketan; konpota berritzailearen saria ere berbera izango da: txapela eta 300 euro-

**Gutunerako oharra**

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidal daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (kultur etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunetan norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

ko txekia. Sari banaketaren eta zozketaren ostean, konpotak probatzeko aukera izango dute herritarrek.

Konpota oso gurea den jatekoa izan arren, pixkanaka galtzen ari dela dirudi; beraz, ea denon artean indartu eta Gabonei sagar zaporea ematen diegun. Anima zaitzete, hortaz, eta erakutsi ezazu zein goxoa dagoen zuek egindakoa.

■ **Arkupe elkarrea**

**Bada zer hobetua**

Kexaka nabilela esango dute batzuek, baina zentzuzko kezkek direla esango nuke nik:

Bat: Zer pasa da aguazilaren lanpostuarekin Aian? Desagertu egin ote da? Nire ustez, uniformeaz jantzitako batearen bat behar-beharrezkoa da: auzoak zaintzen, kalean dabilen bat, denok ikusteko moduan.

Bi: Zer dugu Andatzako bizilagunok Aiako herrigunekoengandik eta Santio Erreka auzokoengandik bereziak izateko modukoa? Haiek bai, eroso-eroso egon daitezke autobusa noiz etorriko zain, eserita; baina guk ez, ez dugu eserlekurik eta. Bateren batek esango al lida-ke zergatik?

Hiru: Aia-Orioko tren geltoki zahar-reen bazegoen komuna, baina garai batean itxi egin zuten eta ez zuten atea berriro ireki. Orain, geltoki moderno eta ederra dugu, baina ez zaie burutik pasa ere egin komuna jartzea. Sinesgaitza da, benetan, are gehiago kontuan hartuta tren gehienetan ez dagoela komunik!

Zuek ere kezka hauek gurekin elkarbanatuko dituzuelakoan... ■ **Andatzako auzokide bat**

**Berlingo Jingo de Lunch Euskal Herrian berriro**

Badira ia bi urte eta erdi izan zirela gurean azken aldiz. Zehazki esateko, 2008an bi emanaldi egin zituzten: Bergarako Jam aretoan lehena, maiatzaren 10ean; eta bigarrena, uztailearen 19an, Bermeoko Aritzatxu Rock Free jaialdian.

Oraingo honetan aurtengo irailean Noise solution zigiluarekin ateratako Land of the Free-k-s izeneko disko berria aurkeztera datoz, bi emanaldi eginez: bat abenduaren 17an Durangoko Plateruena aretoan. Berekin batera Bergarako Fly Shit eta Añorgako UK Bill taldeak arituko dira.

Bigarren ikuskizuna, berriaz, abenduaren 18an izango da, Andoaingo gaztetxean, UK Bill taldearekin.

Jingo-ren azken diskoa osatzen duten 10 abestiek, haien jatorrizko soinuari heltzen diote. Beraz Jingo de Lunch berriro ikusteko aukera ez galtzea gomendatuko nizueke, zeren eta zuzeneko emanaldi ederrak eskaintzen dituzte benetan. ■ **Xanti Manterola**



**zkue**  
Tf: 943 13 04 38

laroko bakailaoa daukagu  
**ITSAS MENDI**  
gutzikiak  
Euzko Guterri, 5 Tel: 943 24 07 74 - Ormaiztegui



**RAMIRO**  
argazkiak  
Gabon zorientsuak igaro ditzazuela!

943 83 10 48 /  
610 697 668  
www.fotoramiro.com



Baserriz baserri, bizilagun edo jabeekin hitz egin dute informazioa jasotzeko; Aldape baserrian ere izan ziren bisitan . ZEHAZTEN

# Orioko baserrien fitxategia osatu dute eta erakusketa jarriko du Udalak

Baserrien argazkiekin, historiarekin eta gaur egungo datuekin erakusketa jarriko dute kultur etxean eta bildutako informazioarekin gida liburua prestatzekoak dira datorren urterako

Udalak herriko baserrien fitxategia osatzeko beka deialdia egin zuen, Orioko baserrien inguruko datu bilketa sakona egiteko asmoz. Beka Xabier Alberdik, Oihana Artetxek, Iosu Etxezarragak eta Carlos Rilovak osatutako taldeak eskuratu zuen eta berek egin dute lana. Zehazten Zerbitzu Kulturalako kide dira.

Urte hasieran ekin zioten lanari, liburuetan eta artxiboetan datuak bilduz eta baserriz baserri elkarrizketak eginez. Baserritarrek ondo hartu dituztela eta kontu zahar ugari jaso dituztela jakinarazi du Xabier Alberdik: *Badira gaur egun hutsik dauden baserriak eta haien jabeekin bat egitea izan da beharbada zailtasunik handiena.*

Lan hori egiterakoan ikusi dute gaur egun galzorian dagoela dirudien baserriak aldaketa ugari izan dituela urteetan barrena: garai batean errota, burdinola... ziren baserriek gaur egun ez dutela jarduera hori mantentzen edo etxe bakarra bitan banatu dutela...

## Erakusketa eta gidaliburua

Fitxategia osatu eta Udalaren esku utzi zuen lantaldeak. Udalak, datuak herritarrentzat interesgarriak direlakoan, oriotarren artean zabaltzea pentsatu du eta, horretarako, hitzaldia eta erakusketa antolatu ditu.

Panel bidezko erakusketa izango da. Baserrien argazkiak eta beren historia orokorra jasoko dituzte. Jardueraren

## ZENBAKIA

# 44

**Baserri.** San Martin, Ortzaiika, Botaleku eta Benta aldean barrena ibili dira baserriz baserri Zehazten taldeko ikerlariak eta guztira 44 baserri zenbatu dituzte Orioko lurretan. Horietako batzuetan gaur egun ez dago bizilagunik eta beste batzuetan ez da baserri jarduerarik egiten, bizileku baino ez dira.

araberako baserrien sailkapena ere egingo dute: errota, burdinola edo ontziola izandakoak; sortetxeak; ohiko baserriak; Udalak errentan emateko eraikitakoak... Bestalde, gaur egun baserri jarduera mantentzen dutenei aparteko aipamena egingo diete.

Erakusketaren ondoren, datorren urteari begira, herriko baserrien inguruko gidaliburu bat egingo dute. Jasotako informazioa fitxa bidez emateaz gain, ibilbideak ere jasoko dituzte, baserriak bertatik bertara ezagutzeko.

## Bitxikeria

Baserriz baserri joan eta guztira 44 pasa dituzte auzoz auzo, baina baserriei buruzkoak ez ezik bestelako informazio eta kontu bitxirik ere aurkitu dute azterketa egiten ari ziren bitartean. *San Martin ermitaren ondoan, satorzulo bat ikusi eta, gerturatu ginenean, erromatar garaiko zeramika batzuen aztarnak aurkitu genituen*, dio Xabier Alberdik. Oraindik azterketa sakonagoa egitekoak dira; beraz, oraingoz herriko baserriek eman dutena ikusiko dute oriotarrek urtarrilaren 7ra arte kultur etxean ikusgai izango den erakusketan.



# Bigarren aukera izango dute jostailu zaharrek Jostailu Erabilien I. Azokan

Etxean hautsez beteta ditugun jostailu horiei guztiei jabe berria aurkitzeko azoka antolatu du Herrio natur taldeak abenduaren 18rako. Goiz eta arratsaldean izango da azoka, kultur etxean

Jostailu Erabilien Azoka egingo da lehen aldiz Orion abenduaren 18an. Ekimena antolatzaile Herrio natur taldeak adierazi duenez, etxeetan erabiltzen ez diren edo behar ez diren jostailuei erabiler berria emango zaie modu horretara.

Azokak behar bezala funtziona dezan, herritarren parte hartzea eskatu du Herriok. Abenduaren 17an, ostiralarekin, egoera onean dauden jostailuak jasoko

dituzte kultur etxean, 17:00etatik 19:30era bitartean. Osorik dauden jostailuak bakarrik hartuko dituzte, norberak oparitan jasotzeko modukoak. Ekarrirako jostailu bakoitzeko txartel bana jasoko da, neurriaren arabera kolorekoa: horia, urdina edo gorria.

## Goiz eta arratsaldean

Bildutako jostailu guztiakin truke-azoka

jarriko da hilaren 18an, larunbatean. Goizean -11:30etik 13:30era- txartela dutenek bakarrik hartu ahal izango dituzte jokoak. Haiantzako trukea izango da, hortaz.

Arratsaldean, berriz, herritar guztientzat irekiko da azoka, 16:00etatik 18:00etara. Hori bai, bakoitzak ezin izango ditu nahi adina jostailu hartu, nahi duen guztiak horretarako aukera izan dezan.

Behin azoka bukatuta, jostailuak sobera geratuz gero, Gobernu Kanpoko Erakunde bati emango zaizkio, beste haur batzuek erabil ditzaten.



Beste hainbat eta hainbat herritan egiten dira jostailu azokak. Orion aurreneko aldia izango da. MONDRABERRI

## LABUR

### Lehiaketa

#### Konpota lehiaketa Gabonetan

Aurreneko aldiz, Sagar eguna antolatu du Arkupe elkarteak abenduaren 28rako. Konpota lehiaketa izango da egun horretako ardatz. 18:30ak arte jasoko dituzte etxetik eraman beharko diren postreak. Konpota klasiko onenari eta konpota berritzailerarenari sari bana emango zaie. Lehiaketan parte hartzeko, hilaren 23a baino lehen eman behar da izena, Arkupeko edozein dendatan.

### Gabonak

#### Erregeen Kabalgata

Bidean dira Hiru Errege Magoak; Orio eta Aiatik gero eta gertuago daude, aurten zintzoak izan diren haurrei emateko opariz bete-bete eginda. Urtero bezala, Meltxor, Gaspar eta Baltasarri danbor eta pandero hotsez egingo zaie harrera Orion. Danborradan parte hartu nahi duten haurrek, beraz, abenduaren 17an eman beharko dute izena Ikastolako pergelara azalduta. Behin parte hartzeko asmoa agertuta, entsegetara joan beharko dute umeek, gero urtarrilaren 5ean kalez kale danborra joaz ibiltzeko.

### Ikastaroa

#### Haurrentzako masajea

Haurrentzako masaje ikastaroa antolatu du 2009an jaiotako haurren gurasoentzat Orioko Herri Ikastolak. Urtarrilaren 18an hasita, ikastaroak bost asteartetan egingo dituzte 17:00etatik 19:00etara. Nerea Mendizabal irakaslearekin 6 edo 7 haurreko talde txikitan egingo dituzte saioak eta haurrekin guraso bat ala biak joan ahal izango dira. Ikastolako idazkartzan eman behar da izena edo 943 83 47 04/625 70 6439 zenbakietara deituta urtarrilaren 12a baino lehen. Parte hartzaileek 40 euro ordaindu beharko dituzte.

# Hiru urte eta gero, hilaren 23an ikusiko du argia *Itsasoko erromesak lanak*

2007ko udan herriko hainbat arraunzalek egindako bidaia bereziaren kontakizuna eta bitxikeriak jasotzen dituen lana aurkeztuko du Urtzi Garmendia oriotarrak kultur etxean

Hiru urtez lanean buru belarri jardun ondoren, bideo-dokumental batean jaso du Urtzi Garmendia oriotarrak 2007ko udan Orioko eta Aiako arraunzale batzuek Compostelako Santiagora itsasoz egindako erromesaldiaren estreinako historia berezi eta gogorra.

Erromesen ahotik entzungo den kontakizuna izango da lanaren ardatz. Elkarriketa moduan eta euskara hutsean egina, bizitakoaren berri emango dute. Garmendiaren hitzetan, saiatu den arren, ezin izan du erromes guztiekin egon eta elkarriketatu ez dituen lagunak beste era batera *-nola ez digu esan nahi izan-* txertatu ditu dokumentalean. Dinamikoa eta ikuserraza egiten saiatu dela ere adierazi digu, irudiak nahikoa erreplikakorrak izan daitezkeela jakinda.

Gainerakoa jakin nahi duenak, *Itsasoko Erromesak* eskuratu arte itxaron behar du, egileak ez baitu beste inolako zirrikiturik ireki nahi, sorpresa eta ikusizunaz gozatzeko grinari euste aldera.

## Langogorra

Lan gogorra eta luzea izan du Urtzi Garmendiak aurrez aurre. Alde batetik, denbora librean, heldu dio lan honi; eta bestalde, 35 orduko materiala ordu eta erdiko lanera ekarri behar izan du. Ordu horiek guztiak ikusi, sailkatu, denborak eta iraupenak idatzi eta ordenagailura pasatzeak ikaragarritzko lanak eman dizkio. Horren atzetik, musika aukeratu, gidoia prestatu, ahotsak grabatu eta gainontzeko lanak egin behar izan ditu, jendeak eskuartean izango duen lanari forma eman aurretik.

Laguntzaileak ere izan ditu alboan, hala ere: Galiziaraino joan ziren Andoingo zine eskolako bi lagun, Peio eta Alberto; eta bi bikoizle profesional ere berekin aritu dira, musu truk.

Egin duen lanari erreparatuta, gustura, baina, aldi berean, nekatuta dago Urtzi: *Dokumental honetan denetik egitea egokitu zait: gidoia, zuzendaritza, kameラルari lana, diseinua, ekoizpena... gainez-*

*ka ibili naizela aitortu beharra daukat. Badaki hiru urte luze pasa direla balentria gogoangarria bukatu zutenetik, baina jendearen harrera ona izatea espero du: *Joan den denbora luzea ez dut nola edo ahala justifikatu nahi, badakit asko -erromesak batez ere- zain izan ditudala, baina jendeak nire atzerapena ulertzea espero eta desio dut; hala nahi nuke nik behintzat.**

## Etxean

Aita, Juan Anjel Garmendia, itsasoko erromes izango zela eta piztu zitzaion Urtziri haien abentura betiko grabatuta jartzeko gogo. Galiziarar bidean jarri aurretik hasi zen lehen zinta grabatzen: esate baterako, Orioko jaitsiera eta kiroldegian egin zituzten proba fisikoak kamerarekin hartu zituen.

## Aurkezpena, abenduaren 23an

Kultur etxean egingo dute *Itsasoko erromesak* lanaren aurkezpena Gabon festen atarian, abenduaren 23an, herritar guztientzat. Garmendiak aitortu digunez, itsasoko erromesak, behintzat, bertan izatea gustatuko litzaiokoe, egindako lana bertatik bertara ikusteko.



Itsasoko erromesak Santiagoko katedralaren aurrean, joaneko abentura bukatuta. ERROMESAK





Galarraga, txapela buruan, Egiako Txapelketako azken partida jokatu ondoren. MARIA ELIZEGI

## Diario Vasco txapelketa irabazita txukundu nahi du Galarragak urtea

Abenduaren 26an jokatuko du Enekok aurtengo azken partida: Diario Vasco txapelketako finala. Ezkurdia izango du aurrelari eta hilaren 22an aukeratu beharko dituzte biek pilotak

Lesioz lesio dabil azkenaldian Eneko Galarraga pilotari oriotarra. Ezker izterrean gainkarga izan zuen irailean, Altsasuko Santo Cristo txapelketako finalerdia jokatzen ari zela. Hilabete hartu behar izan zuen deskantsurako, osatzeko. Berriz ere forma hartzen hasi zenean, eskuin izterrean zuntz-haustura izan zuen, azaroan, Gipuzkoako Txapelketako finalerdietan pilota jo eta jo ari zela.

Ondorioz, bertan behera utzi behar izan ditu bi txapelketa: jokoan zen Zaldibarkoa eta hasteko dagoen Llodiokoa.

### Abenduan eta urtarrilean

Minak min, huts egin ezinezko partida du aurrez aurre Galarragak abenduaren 26an: Diario Vasco txapelketa sonatuko azken partida, finala. Bi aste izango ditu, hortaz, izterra bere onera ekartzeko.

Hilaren 22an ekin beharko dio pilotak aukeratzeari, bikote duen Ezkurdiarekin eta Ioldi eta Gorrotxategi aurkariekin batera. Pilota astunak eta bizkorrak nahi izaten ditu oriotarrak, baina iazko

edizioan bere gustukorik ez eta zer eskainiko esperoan dagoela aitortu digu.

Bestalde, partida ikustera joateko autobusa jarri du Udalak. Abenduaren 21a baino lehen eman beharko du izena kiroldegian Galarraga animatzera joan nahi duen pilotazaleak.

DV txapelketa bukatuta, deskantsua hartzeko patxada izango du Galarragak, Espainiako Txapelketa hasi arte. Urtarrilaren erdi aldera izango da hori eta Euskadiren izenean jokatu ezin denez, eta Almeriak deitu egin dionez, andaluziarrekin arituko da.

### Hala moduzkoa

Uztailetik azaroa arte, 4 txapel lortu ditu Galarragak: Bergara Hiria txapelketakoa, Egiako eta Lezoko Txapelketetakoa eta VII. Tolosaldeako Hitza txapelketakoa. Horrez gain, 3 aldiz izendatu dute jokalaririk onena: Bergaran, Egian eta Gipuzkoako Txapelketan. Ez dago oso kontentu halere Eneko; iazko denboraldia aurtengoa baino hobea izan zela dio.

## LABUR

### San Silbestre lasterketa

#### Ibilbidea aldatuko dute aurten

San Silbestre lasterketa izango da Orion urteko azken egunean, munduko beste hainbat lekutan bezala, ohiturari jarraituz. Izena emateko epea jadanik zabalik dago kiroldegian eta helduek bi euro ordaindu behar dituzte. Aurten izango da aldaketarik San Silbestrean. Muntoko obrak direla eta pasabidea asko estutzen denez, antolatzaileek seguru asko aldatu egingo dute ohiko ibilbidea; hala ere, asmoa da Ikastola ondotik hastea haurrak 11:30ean eta 12:00etan helduak. Lasterketaren amaieran sariak banatuko dituzte haurrentzat zein helduentzat, kirol materiala, hain zuzen ere.

### Trindoor

#### Orio San Pedroren aurka finalean

Euskadi Irratiko *Hiru Erregeen Mahaia* irratsaioko Trindoorrean finalerdia jokatuko eta irabazi du Orioko hirukoak Hernanikoaren aurka. Irabazi ez ezik, bi marka hobetzea ere lortu dute oriotarrek finalurrekoan: Hossain Kaanachek 5 minutu eta 48 segundo egin zituen zinta gainean bi kilometro egin eta korrikako errekorra hiru segundoan onduz. Ibon Urbietak 2 minutu eta 54 segundo behar izan zituen ergometroan kilometroa egiteko eta Eneko Santamariak 6 minutu eta 26 segundo egin zuen bost kilometroko bizikleta gaineko lana. Oriok, beraz, 15 minutu eta 8 segundo behar izan zituen proba bukatzeko eta iaz Hernanik lauko finalean eginiko 15 minutu eta 10segundoko marka hobetu zuen. Finala abenduaren 18an, arratsaldean, jokatuko dute eta irratian zuzenean entzun ahal izango da.

### Judoa

#### Ibai Peña 2. eta Xabier Urkizu 3. Euskadiko Txapelketan

Joan den igandean Erreterian jokatuko zen senior mailako Euskadiko Judo Txapelketa eta 66 kiloz azpikoetan Ibai Peña bigarren izan zen. Horrela, otsailean jokatuko den Espainiako Txapelketako Iparraldeko sailkatze faserako txartela lortu du. Bestalde, 81 kilotik beherakoetan Xabier Urkizu hirugarren izan zen. Oiana Blancok, berriz, Tokioko Grand Slam-ean lehen borrokaldea galdu zuen munduko rankinean zazpigarrena den Sarah Menezes brasildararen aurka; beraz, ez zuen dominarik eskuratu. Hurrengo asteburuan Txinan izango da Asian barrena egin duen birako azken txapelketan parte hartuz.



# “Etxean eguneroko ogia izaten nuen nik harria: harria gora, harria beheara”

## Joseba Ostolaza

Harri jasotzailea

Sehaskatik bertatik ikasi zuen Joseba Ostolazak harria jasotzeko teknika. Koxkortzean heldu zion aurreneko aldiz eta, orduz geroztik, ez dio bakerik ematen harri bati ala besteari.

### L. BERASALUZE

Urte mordoxka darama Joseba Ostolazak harriarekin *jolasean*. Arroa Goikoan jaioba bada ere, badira dagoeneko urte batzuk Oriora ezkondu zela. Moilan egin dugu zita berarekin.

**Zer ikusi, hura ikasi. Aita harri jasotzailea izanda, semea...**

Orion hasi zen harria jasotzen aita, Atxegaren alboan, 17 bat urte zituela. Bizi osoa eman zuen apustu tartean eta jokatutako erronka guztiak irabazi zituen: Perurenari, Urtaini, Endañetari...

Etxeko eguneroko ogia izaten genuen guk harria; baina, txikia nintzela, lotsa ematen zidan harri jasotzen hasteak eta 13-14 urte arte ez nion heldu. Behin hasi nintzenean, ordea, ezin gelditu. 14 urte nituela federatzeko baimena eskatu

nuen; ez zidaten eman, gaztegia nintzelako. Urtebete itxaron behar izan nuen.

16 urterekin 200 kilo jaso nituen. Harez gero, han-hemenka ibiltzen naiz.

**Aitak ere gogor hartuko zintuen!**

Aitak esan izan dit nik *apustuak zer diren bazekiat eta erronkak jokatu nahi badi-tuk lagunduko diat, baina jakin ezak tra-go txarrak ere pasa behar izango dituala, ez duk txapelketetan aritzea bezain poli-ta*. Eta nik txapelketetara jo dut.

**Zer nolako lehiatan ibiltzen zara?**

Gaztea nintzela, 23 bat urte bete arte, ahalik eta harri astunena jasotzera bideratu nituen indarrak. Bi eskuekin jaso dudun harririk pisutsuena 263 kilokoa da –Perurenako Bentan sorbaldara berdindua– eta esku batekin altxatuko astunenak, berriz, 213 kilo ditu. Bide horretatik gehiago ezin nuela eta jo nuen txa-

pelketetara. Lehia ofizialetan gustura nenbilela, baina, meniskoa hautsi nuen. Muturreko ederra hartu nuen!

Joxe Ramon Unanueren laguntzaz lesioa gaindituta, urte hartan justu-justuan ibili ondoren, urtebetera, Euskadiko txapelkun izan nintzen, bai harri handietan eta baita txikietan ere.

**Zenbat txapel dituzu apalean gordeta?**

Euskadiko Harri handietako txapelketetako lau ditut eta txikietako hiru. Horiez gain, harri baldarrarekin jokatzen diren bestelako txapelketa askotakoak ere –Igeldo harria, Amezketako harria, Txintxarri harria...– gordeta ditut. 15 urte nituela, kintopeko harrien txapelketa jokatu nuen lehenengo aldiz. 18-20 urte zituztenei hartu nien aurre.

**Atzerrian ere ibilia zara harria jasotzen.**

Kirol honi esker, mundua gehixeago ezagutzeko aukera izan dut, bai. Erroman izan ginen duela urte batzuk, tele-

**“263 kilo ditu bi eskuekin jaso dudun harririk pisutsuenak. Esku batekin altxatuko astunena, berriz, 213 kiloko harria da”**

“Ikaragarri indartsu dago Aimar Irigoien, 24 urterekin. Hala ere, aurtengo denboraldian zenbaitetan aurre hartu diot”

bistako lehiaketa batean. 100 kiloko bolari 20 buelta eman ala ez zegoen jokoan. Sinestu ezinik geratu ziren erronka bete nuenean. Estatu Batuetan hiru aldiz izan naiz eta Argentinan ere egona naiz.

**Egunera etorri, indartsu dago Irigoien.**

Bai, ikaragarri dago 24 urterekin eta badut nahikoa lan harekin. Hala ere, batzuetan –Adunako txapelketetan kasu– Aimarren aurretik izan naiz; gaineraketan bigarren, eta gustura.

**Harri jasotzaile gehiago ere baditugu hemen.**

Gustura dabil Unai Lertxundi. Aurten gainera oso ondo ikusi dut. Nahiago nuke horrelako gehiago baleude!

Idoia Etxeberria oriotarra ere markaz marka dabil, gelditu gabe. Egunen batean mutilen artean ikus genezake txapelketaren batean, harria jasotzen. Betiko idatzita geratuko litzateke balentria hori, historiarako.



KARKARA



# Aiako berri



KARKARA

“Eskertzekoa da bizi zaren artean jendeak gogoan zaituela ikustea”

## Txomin Perurena

Txirrindulari ohia

Bizikletazaleak Aiara ekarri zituen, beste behin ere, Aia eta Orioko ziklo-kros sari nagusiak. Bi gorpilen gaineko ia 50 kirolari trebe izan genituen abenduaren 8an. Ikusleen artean zen sari banaketaren ondoren omendu zuten Txomin Perurena ere

### L. BERASALUZE

Gaztetatik izan du Txomin Perurenak txirrindularitza gustuko, bizikletaren gainean izan alaez. Artikuluak idatziz eta

irratian esatari lanak eginez, txirrindularitzara zilborrestetik lotuta jarraitzen du oiartzuarrak oraindik ere. Aia eta Orioko ziklo-kros sari nagusiko premioak banatu ondoren harrapatu du.

### Nola hartu duzu orain zuri egindako omenaldi edo aipamen hau?

Egia esan, ez dakit askorik, zerbait aipatu badidate ere—probako antolatzaile den *Oriotarrak* elkarteko ordezkarien ahotik jakin dugu Euskal Herriko Txirrindulari Lasterketan Perurenak emandako laguntza eskertzeko modua izan dela gorazarre hau—. Hona etortzeko esan zidaten niri eta hemen nago. Bukatu berri den ziklo-kros probako sariak banatzen jarri naute. Gauza polita da bizi zaren artean jendeak gogoan zaituela ikustea. Estimatzekoa da, benetan.

### Zer iruditu zaizu gozatu berri duzun ziklo-kros proba?

Ibilbideari dagokionez, oso polita izan da. Jendea falta izan da lasterketa ikusteko eta kirolariak animatzeko.

Gainerakoan, giroa harro-harroa izan da, egokia; euria eta hotza izan balitz, proba gogorra izango zen, indartsu jotzen du hemen haizeak eta.

### Gazteak ikusi ditugu jo eta ke. Txirrindularitzaren etorkizuna zer koloretakoa ikusten duzu?

Atseginez ikusten dira gazte sortak bizikletaren gainean. Etorkizuna itxaropentsua izan liteke.

Nire garaian ez zen horrelako ziklo-kros txapelketarik izaten; profesionalak zeuden eta kitto. Guretzat bizikleta laneko tresna bezala izaten zen.

### Zure begiek ezberdin ikusten al dute orain txirrindularitza?

Lehen ere gogorra zen eta orain ere horrelakoxea iruditzen zait. Bizikletak berak aldatuko ziren nire garaietatik hona, baina kirol gogorra da oraindik ere. Lehen baino azkarrago ibiltzen dira orain, eta azkenean... balantza eginda, lehen eta orain antzeko.

### Errepideko probak ziklo-krosa baino askoz ere baloratuago daude, ezta?

Bai, tradizio gehiago du hemen errepideko txirrindularitzak eta horretara jotzen du jendeak. Hala ere, nik uste dut espezialitate honetan garai batean bezalako txirrindulari onak izanez gero, du darik gabe, jendea agertuko litzatekeela animatzera.





Abenduaren 22an etorriko da Olentzero gutunak jasotzera . KARKARA

## Gabonetan aisialdirako hainbat ekintza antolatu ditu Guraso Elkarteak

Olentzero eta bizar zuriren etorrera, zinema saioak, Gabonetako Parkera irteera eta pailazoen ikuskizuna izango dira etxeko txikiek oporretan ongi pasatzeko

Gabonetan eskolan oporrak izaten dituzten arren, Lardizabal Herri Eskolako Guraso Elkarteak hainbat ekintza antolatu ditu herriko haur eta gaztetxoentzat aurtengo Gabonetarako.

Goiz iritsiko da Olentzero Aiara, izan ere, abenduaren 22an, 17:00etan, Olenzeroren etorrera ospatuko dute eta ikazkinak umeen eskutitzak jaso ondoren txokolatea banatuko dute plazan elkartzen direnentzat. Abenduaren 24a kanturako eguna izango da. Goizeko berderatzietan plazan elkartuko dira auzoetara abestera joateko eta arratsaldean, bostetan hasita, herrian abestuko dute.

### Zinema saioak

Film emanaldiak ere hartuko dute opor sasoian tokia. Abenduaren 26an *Cuento de Navidad* emango dute 17:00etan eta 18:30ean *La ultima cancion*; abenduaren 28an, *Fantasma Sr. Fox*; abenduaren 30ean *Donde viven los monstruos*; eta ur-

tarrilaren 4an *Toy Story 3*, hiru filmak bostetan; eta urtarrilaren 9an bi film izango dira ikusgai: 17:00etan *Shrek felices para siempre* eta 18:30ean *Avatar*.

Bilboko Gabonetako Parkera irteera ere egingo dute hilaren 27an. 09:30ean abiatu eta 16:30ean itzuliko dira. Bestalde, urtarrilaren 2rako Kaka, Koko eta Moko pailazoen ikuskizuna antolatu dute. 11:00etan izango da eta, ondoren, Bizarzuri joango da eskutitzak jasotzera.

### San Silbestre

Umeentzat ez ezik helduentzat ere izango da aisialdirako aukerarik Gabonetan. Abenduaren 31 arratsalderako 3 kilometroko San Silbestre lasterketa antolatu dute Udalaran eta herriko tabernarien laguntzaz. Izena emateko kultur etxera jo daiteke hilaren 21etik aurrera edo egunean bertan 16:00etatik aurrera irteera puntuan. Parte hartzaile guztien artean sariak zozketatuko dituzte.

## LABUR

### Santa Luzia

**J. I. eta M. K. Egurza eta Nekane Gonzalez hegazti lehiaketan**

Urretxu eta Zumarragako 2010eko Santa Luziako Ferian hainbat lehiaketa izan dira astean zehar eta sari bat baino gehiago Aiara etorri da. Euskal arrazak berreskuratzeko eta animaliak modu egokian zaintzeko duten trebezia erakutsi dute aiarrek. Mari Karmen Egurza Agirre eta Nekane Gonzalez Zaragueta 200na euro eta plaka banarekin saritu dituzte kapoi sariketan eta Euskal Oiloa arrazako oilasko sariketan, berriz, Jose Inazio Egurzak jaso ditu 175 euroko saria eta plaka.

### Erromeria

**Ostolaza eta Andonegi izango dira igandean Aristerrazun**

Andatzako Erromeria Elkarteak antolatuta, erromeria izango da igande honetan, abenduaren 19an, Andatza auzuko Aristerrazuko plazan. 18:30ean hasi eta 21:30era bitartean dantzarako doinurik ez da faltako Ostolaza eta Andonegi trikitilarien eskutik.

### Idi-demak

**Jimenez eta Izetaren arteko apustua urtarrilaren 1ean**

Urte berria apustu giroan hasiko dute Aiako dema plazan. Izan ere, urtarrilaren lehen egunerako egin dago aurreneko hitzordua. Eguerdiko hamabietan hasita, nor baino nor arituko dira Jesus Maria Manzidor *Jimenez* eta Jose Ramon Iru-retagoiena *Izeta* zeinen idiek plaza gehiago egingo.

### Jendartea

**Etxebizitzari buruzko inkesta 36 lagunek erantzun dute**

Etorkizunean etxebizitza eskaerei erantzun egokia emateko asmoz inkesta bat zabaldu zuen herritarren artean Udalak. Etxebizitza erosteko asmoari buruzko galderak erantzun behar izan zituzten aiarrek, hau da, etxebizitzak erostekotan noiz, nolakoak, non, zein preziotan... nahi lituzketen. Udaletxean guztira 36 inkesta jaso dituzte eta gustura daude jendeak galderei erantzuteko tartea hartu duelako. Orain, batzordean aztertu beharko dituzte emaitzak gero erabaki egokienak hartu ahal izateko. Udaletik adierazi dutenez, emaitza horiek erreferentzia garrantzitsua izango dira etorkizunean etxebizitzaren gaia lantzeko.







# Aiako berri

Aiako leihoa

Nikolas Zendoia

## Faltan bilatzen dut

**B**ai, faltan bilatzen dut ba, ba —joan deneko aspaldian gainera—, Aia-Orion bertsopaper lehiaketarik ez egitea. Baina hau nire iritzia bakarrik da, eta ez nuke nahi inor nahasterik.

Bertsolari ospetsuak izan diren herrialdeetan, zintzo ari dira urteroko bertsopaper lehiaketak egiten. Eta parte hartzaileak ez nuke esango gutxitzen doazenik; ez helduen mailan, eta ezta gaztetxoan mailan ere.

Nik esango nuke, gaur egun, bertsopaper lehiaketak herrialdeari halako aintza polit bat ematen diola. Bertso eskoletako neska-mutikoen artean ere afizio handia sortu da, lehiaketetara bertsopaperak bidaltzeko.

Gerorako, bat-bateko bertsoak ondo

egiteko bidea markatzen du horrek.

Ni ez naiz hasiko esaten zein herrialdeetan egiten diren bertsopaper lehiaketak. Baina, Aia-Orion egitea oso polita izango litzatekeela, bai.

Herrialderik gehienetan, bertsolari ospetsuren baten izena izaten du bertsopaper lehiaketak. Nik pentsatzen dudanez, ospe handia izan duen bertsolaria bizitua da Aian eta Orion: Manuel Lasarte. Urtero edo bi urtez behin bertsopaper lehiaketa antolatzeko izenburu egokiagorik... Gure Manuel bizi den arte, Aiak eta Oriok zer erregalu hobea eskaini hain estimatua izan den bertsolariari.

Eta, aspaldiko bertsolarietara joko bagenu, berriz, beharbada izan daiteke Pastor Izuela; edo Udarregi bera...

Baina nik uste dut bertsolaria bizirik dagoenean hasi behar dela erregalu horiek egiten. Poztuko nintzateke benebenetan. Izango litzateke bai, nork parte hartua, Aian eta Orion. Batez ere, Orion. Ea zenbat bertsolari dagoen bertan!

Bestetik, arrantzale herria da, gainera. Eta arraunlariena, zer polita! Arrantzale herria eta bertsolariak aukeran dituen.

Aiatik, beharbada, ez horrenbeste, baina, afizioa izan genuen zahar batzuek bagaude eta saiaturiko ginatete ahalegintxo bana egiten.

Ea ba, karkaratarrok, gure Manuel Lasarte handiari opari hau eskaintzen zaion.



## Txokoak eta jendea

Ubegun eremuko zabortegia

Gustuko dugu txoko honetan argazki alaiak jartzea, baina oraingon kexatzeko erabili nahi dugu. Argazkiko zabor pilaketa hori Ubegungo industriagunean dago; lotsagarria benetan! Are gehiago, Garbigunea 300 metrora dagoela jakinda. Alferrik dira zaborrontziak nahi dugun lekuan botatzen baditugu gure zaborrak!





## AZER PAREA, KARAKOLA ETA BAREA

**U**rte mordoxka baditu oraingoan dakarkizuegun argazki honek: 1973. urtean ateratakoa da, hain zuzen ere. KAS taldea indartsu zebilen orduan txirrindularitzan; urte oparo eta gozoak ziren talde euskaldunarentzat.

KASeko kide zen Txomin Perurena –Aiako orrietan elkarrizketatu dugun bera–. Argazkian, Fernando Ortiz de Guinea oriotarrarekin agertzen da, ziklo-kroseko txapelketa bat bukatu ondoren –errepideko lasterketetara–

ko prestakuntza gisa ibiltzen ziren txirrindulariak ziklo-krosean–. Gazte-gaztetatik eza gutzen zuten biek elkar, txirrindularitzari zioten maitasuna tarteko.

Animoz puztuko zuen seguru asko Ortiz de Guineak duela 37 urte. Izan ere, erretratua atera eta hurrengo urtean, Frantziako Tourreko mendiko elastiko zuri-gorria bereganatu zuen Perurenak.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: F. ORTIZ DE GUINEA

## karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

**WEB**  
DISEÑO  
PROGRAMAZIOA  
JON CEREZO OTAÑO  
TEL: 691-31-22-40

**kutixi**  
kafetegia  
GOSARI GOSONAK  
Artizaga 5, 20810 Oriu  
Tf: 943 13 15 17

**GaleBask S.L.**  
Berrikuntzak  
Gremioen arteko koordinazioa  
938 810 349  
Tel./Fax: 943 134 717  
galebask@hotmail.com  
www.galebask.com  
Kale Nagusia, 2 -bajo  
20810 ORIO

# “Bakegintza ulertzen dut, baina ez mugarik gabe”

**Ahmed Ziad**

Orion bizi den sahararra

Mendebaldeko Saharan gertatzen ari denaren berri eman nahi dute Orion bizi diren sahararrek, albisteen titular izatetik herri ahaztua izatera pasa ez daitezten. Egoerak lehen bezain larria izaten jarraitzen duela diote eta **jatorrizko lurrean geratu zirenak erabat zapalduta bizi** direla.

**TESTUA: IRATI AGIRREAZALDEGI**  
**ARGAZKIAK: ARANTXA ARRILLAGA**  
**ETA IRATI AGIRREAZALDEGI**

Saharan gertatzen ari den guztia adi-adi ahal duen gertuenetik jarraitzen ari da Ahmed Ziad Orion bizi den sahararra. Bertatik bertara ezagutzen du sahararren errealitatea; urrutian egon arren, Saharako senideekin du bihotza, orain.

**Zerk ekarri zintuen Oriora?**

Etorkin guztiak ekartzen dituen gauza berak. Baina gure kasuak gainontzeko etorkinetatik bereizten gaitu: oraindik, NBEren legediaren arabera, Espainiako gobernuaren probintziatako bat gehiago gara; 53. probintzia. 1975ean Espainiako gobernuak, hiruko gobernu sinatuz, traizio lotsagarria egin zuen. Garai hartan Espainiako Parlamentuak, Fran-

co buru zela, ia erabateko gehiengoz Sahararen deskolonizazioaren alde bozkatu zuen, eta orain kontua errepikatzen ari dela dirudi.

**Zein da oraingo egoera?**

Oraingo egoerak ez ditu marokorrek ezustean harrapatu 1975etik sarraskia gure herriak bere baitan izan baitu. Aljeriarako exodoaren garaian, gure herriaren zati batek hara alde egiteko aukera





**ELKARRIZKETA**

izan zuenean, bonbardaketak bizi behar izan zituzten Marokoko hegazkinetatik: napalm-a, fosforo zuria... Beti Frantziarren laguntzarekin, interes bereziak dituztenez, Maroko mimatutako haurren pare izan dutelako frantziarrek beti. Badirudi gaur egungo Espainiako gobernuak ere interes pertsonalak jartzen dituela penintsularen interesen gainetik. Uste dut inork ez lituzkeela norberaren interesak eskubideen zapalketaren gainetik jarri behar eta sarraskiaren aurrean isilik egon; ulertezina da.

**Zuen herriarekin harremanik baduzue?**

Errefuxiatuen kanpamenduekin ia eguero egoten gara harremanetan, ez daudelako orain sarraski egoera horren barnean. Marokoren mende dauden sahararrak dira oraingo hondamendia jasaten ari direnak. Guk senide asko ditugu han. Harremanari eusten saiatzen gara kanpamenduetan eta okupatutako gunetik gertuago dauden gure senideekin, baina beti ere kontuan hartuta telefonoak kontrolatuta daudela.

Saharako egoera tirabiratsua da oso, eta momentu jakin batean kontrola galtzen da. Esaterako, gure etxera, gaizkile bat sartuko balitz, guk edozer egingo genuke hura kaleratzeko, hitzez ez bada indarrez. Beraz, argi utzi behar zaie marokoarrei sahararrok badauzkagula gure bideak. 35 urte pasa ditugu haien indarra sofitzen. 5.000 saharar preso hartu dira, eta batzuek bizia ere eman dute gure eskubideengatik; hiltzearen bidea aukeratzean. Ulertzen dut bakegintzaren bidea, baina ez modu mugagabea.

**Zer egin daiteke arazoari aurre egiteko?**

Arazoa bera munduari ulertarazi. Gure herrialdea sutuko balitz, garrak hedatu egingo liriateke. Marokoko gerrak interes ekonomiko zein sozial askorengan izango luke eragina. Hemen egon arren, zain gaude gure herritik agindu bat noiz jasoko, kanpamenduetara joateko dagozkigun eginbeharrak betetzera gure herriaren eta gure eskubideen alde. Hil, denok hil behar dugu lehenago edo beranduago, gerran edo dantzaleku batean, bihotzkoak jota edo bala tiro batekin; are gehiago, norbere eskubideak defendatzen ari denean.

**Hemengo jendeak ba al du Saharako egoeraren berri?**

Euskal Herriarekin elkartasun harremana dugu, beste edozein herrirekin baino handiagoa. Orion, esaterako, Saharako familia bakarra gaude eta gure ahalegina egiten ari gara. Bada jendea oraingo egoerari buruz galdetzen diguna, baina oso gutxi dira. Askok ez daki Saharako sarraskiaren berri ere, telebistan ikusten dute edozein filma ikusiko

“Maroko mimatutako haurren pare izan dute frantziarrek beti, interes bereziak dituztelako. Badirudi egungo Espainiako gobernuak ere interes pertsonalak jartzen dituela herriaren interesen gainetik”

“Gure etxera gaizkile bat sartuko balitz, guk edozer egingo genuke hura kaleratzeko, hitzez ez bada indarrez. Beraz, argi utzi behar zaie marokoarrei sahararrok badauzkagula gure bideak”

“Denok hil behar dugu lehenago edo beranduago, gerran edo dantzaleku batean, bihotzkoak jota edo bala tiro batekin; are gehiago, norbere eskubideak defendatzen ari denean”

“Badago sahararrei laguntzeko eta Marokoko erregea ahultzeko modua: Marokora turismo egitera ez joatea. Joanez gero, nahi gabe bada ere, mendeko herrialde bat zapaltzen jarrai dezaten laguntzen ariko da”

“Garbiketa etnikoa egiten ari dira; etxez etxe joan eta 12tik 45 urtera arteko saharar guztiak eramaten dituzte, haien ustez hor dagoelako arazoaren muina eta errotik moztu nahi dute. Baina hori aspaldiko kontua da”

“Espainiako Kode Zibileko 18. artikulua dio herritartasuna galdu duen edozein sahararrek eskubidea duela berreskuratzeko tramiteak eginez eta espainiarra izan zela erakusten duen agiriren bat erakutsiz”

balute bezala. Bestalde, Euskal Herritik errefuxiatu kanpamenduetara joan direnak eta joango direnak badira; beraz, badute gure egoeraren berri.

**Kanpamenduetara orain ere joan daiteke jendea hemendik?**

Bai, baina bereizi behar dira errefuxiatuen kanpamenduak eta okupatutako zonaldean jarritakoak. Baina badago sahararrei laguntzeko eta Marokoko erregea ahultzeko modua: Marokora turismo egitera ez joatea; hara joanez gero, nahi gabe bada ere, laguntzen ariko da, mendeko herrialde bat zapaltzen jarrai dezaten. Era berean, saihestu behar da lapurtutako produktuak erostea: tomateak, adibidez. Marokori tomateak erostea, eta ez penintsulakoak, kalterako eragina du Espainiako nekazariengan. Tomate horiek Saharan landatuak dira, saltzen duten arraina Saharako uretakoak... Espainiak, bereziki alderdi sozialistak, Saharari laguntzen diola esan arren, sahararroi irin zaku bat ematen digun bakoitzean, Marokori tanke bat saltzen dio.

Espainiako kazetariak onartu ditu Marokok, baina berak aukeratuak. Europako herrialde batek onar al lezake hori? Kazetariak berek nahi duten tokietara bakarrik eramanez gero, haiek nahi dutena baino ez dute gero kontatuko eta berriak manipulatu iritsiko zaizkigu.

Orain, Internet bitartez jasotzen ditugu hango berriak. KZgunean egoten naiz egunero lagunekin harremanetan, informazioa biltzeko. Informazio iturri ofizialak fidagarriak ez direnez, bestelakoak jaso dezakegu horrela.

**Zein berri jasotzen duzue?**

Gizartean baztertutako jendeak –lana, etxebizitza... eskatzen zutenek– kanpamendua eraiki zuten eta erabaki zuten, eskari horiei erantzunik eman ezean, kanpamendua ez uztea; izan ere, handik irteteak hirian goseak hiltzea esan nahi du; beraz, behin hiltzekotan, nahiago denak batera hil eta jendeak horren berri izatea. Baina mundua Hitler, Franco, Primo de Riveraren... arora bueltatu da, egoera erabat kaotikoa da. Garbiketa etnikoa egiten ari dira; etxez etxe joan eta 12 urtetik 45era arteko saharar guztiak eramaten dituzte, haien ustez hor dagoelako arazoaren muina eta errotik moztu nahi dute. Baina hori ez da gaurko kontua, aspaldikoa baizik.

**Zergatik dago orain tentsio handiago?**

Tentsioa beti izan da, baina orain eztan da egin du. Zauri bat gaiztotzen hasten denean txarrera egingo du harik eta lehertzen den arte. Bada, zauria kanpamendua da eta, sarraskiaren eraginez, eztanda egin du. Gukez dugu atzera





egingo, beti aurrera emango ditugu pausoak.

### **Zer egin genezake hemendik herri sahararri laguntzeko?**

Euskal gizartea gure egoerarekiko sentibera da oso, eta sahararron minarekin bat egiten du. Izan ere, historiak batzen gaitu, bi herrialdeen muinean dagoen historiak. Beti sentitu izan dugu euskaldunen elkartasuna eta aurrerantzean ere hala izan dadin nahi dugu. Nahi genuke norbanako bakoitzak zein erakundeetako ordezkariak, alkateak, zinegotziak, parlamentariak... bakoitzak bere mailan Saharako sarraskia salatzea eta hango arazoaren berri ahalik eta gehien hedatzea. Komunikabideek lan handia egin dute, baina ez da nahikoa. Beharko genuke jendearengana iristeko bidea irekiko digun norbait, hemengo jendea. Orion elkarretaratzea izan zen. *Sahara aske* lelopean eta herritarren zein hainbat etorkinen sostengua jaso genuen. Bestalde, eskertuko genuke gure herriarekiko elkartasuna adieraziz, etxeetan Saharako banderak jartzea, esaterako.

### **Ez ote dira ekintza sinbolikoak baino?**

Ez da sinbolismo hutsa. Horrelako ekintzek balio dezakete Saharako egoerari buruz ezer ez dakitenek galde dezaten. Sahararron bereizgarri da izaera solidarioa. Euskal Herrian, esaterako, beste edozein saharar ikusita beti elkar agurtzen dugu, laguntzeko prest azaltzen gara edo beste herriren batean sahararren etxean atea jo eta badakigu eskuzabalik hartuko gaituztela. Familia eta elkartasun sentimendu hori estuagoa da, etorkinak izateak ere horretara behartzen gaitu.

### **Arazoaren berri eman bai, baina zuek ere baduzue zer jatorik, ezta?**

Galdutako eskubide bat berreskuratzea etorri gara hona, galdutako naziotasuna berreskuratzea. Espainiako Kode Zibileko 18. artikulua dio herritartasuna galdu duen edozein sahararrek eskubidea duela urtebetean berreskuratzeko tramiteak eginez eta beti ere espainiarra izan zela erakusten duen agiriren bat erakutsiz. Guk badauzkagu agiri horiek: familia liburuak, gurasoen nortasun agiriak, ezkontza agiriak, osasun txartelak... baina gobernuarentzat badirudi ez garela ezer.

Espainiarren interesen ordezkari izan behar luke gobernuak, baina espainiar penintsulako bizilagun askok eta askok sahararren alde egiten du: interes partikularren gainetik giza eskubideak jartzen dituzte. Beraz, gobernuak arazoiz jokatu behar luke ordezkatzan dituzten horien interesen eta nahien arabera. Sindikatu, erakunde, elkarte eta norbanakoak sahararron alde daude.

## SAHARATIK BUELTAN

**H**erriko jaien gertutasunak ezin berotuta, Saharan izan gara; ez herri sahararrean, Aljeriako lurretan dagoen baina beren izena daraman basamortuan baizik.

Ez da denbora asko komunikabideetan albiste izan direla: Marokok 14 urteko haur bat hil zuenaren aurrena, eta sahararrek beren eskubideak aldarrikatuz eraikitako kanpamendua indar polizialek eraitsi zutenean gero. Gu ez gara han izan. Okupazio eta gerragatik duela 30 urte Aljeriako basamortuan errefuxiatuta dauden sahararrek elkarbizi ahal izan dugu 8 egunez: haurrekin jolastu, hizkuntzak trukatu, dantzatu, berentzat sakratuak diren hiru teak dastatu...

Elkartasuna eskaini diegu eta beste horrenbeste edo gehiago jaso dugu. Mundu gainean, hareak agintzen duen lurtean gogor irauten duen herria da, gure antzera bere lurtean egunen batean askatasunean bizitzera helduko dela amesten duena.

Amesten dutena sinesten dute. Luze ari dira aspaldi konpondua behar zuenaren zain, armen isilean eta beren lurra zenaren %30aren gainean. Iraina, eskubide zapalkuntza eta, agian gehiegi esatea den arren, herri sahararra deusezteko lirateke Marokoren nahiak. Non dira gure munduko agintari handiusteak? Ez ezazue utzi gerra sortzen, ez duzue bakeaz hitz egiten? Zuen mingainak jan ditu lehengaiak eta negozioak.

Ez dakit nola amaituko den hau guztia, baina sahararrek zuten guztia eman dute eta ez dute aurrerapausorik somatzen. Orainari aurre egiteko modu bakarra gerra egitera joatea bada, nik uste, nahiko mentalizatuta daudela joango direla.

Azken egunotan ez dakit berririk izan den. Isiltasunarengatik espero dugu negoziazioak aurrera doazela, baina kazetariari lurralde okupatuetako sarrera debekatu bazaie, zerbait mugitzen ari den eta Marokok ezkutatatu nahi duen seinale ez ote da?

Eskuminak guztioi Saharako familiakoen partez. Gora Sahara librea!

**MANEX BARRENETXEA**





# Hipotesia, frogak, legea

**N**ire zoologiako irakasleari entzun nion orain urte mordoak bat. Hipotesia: indibiduo batek bere bizitzan zehar eskuratzen duen energiaren erdia baino gehiago erabiltzen du sexu bikotea lortzeko bidean. Hipotesia lege zientifiko bihurtu dadin, baina, lehenik eta behin hipotesi horren frogak mahai gainean jarri behar dira. Eta nik pasa berri diren sanikolasetako azken gaua frogatzen biltzen pasa nuen.

Bai, parrandazalea banaiz. Baina lehentasunak lehentasun, ni zientzialaria naiz izatez eta garbizalea izenez. Beraz, ezin komunitate zientifikoaren zamari eutsi eta astearte gauean, fin-fin bakeroak eta kamiseta baten atzean kamuflatu eta kalera irten nintzen.

Eta nola Newtoni sagarra buru gainera erorita grabitatearen lege unibertsala osatu zuen, niri ere halako zerbait gertatu zitzaidan goizaldean gure gaztetxe jaioberrian lehen hanka sartzean. Ehun-

ka indibiduo lau paretan artean barreiaturik. Batzuk talde txikietan bilduta, besteak handiagoetan eta baita azken batzuk bakarka ere. Den-denak helburu zehatz bakarrarekin: gaurkon zoze lortukoit pa!

Telenobela kaxkar baterako gidoia osatzeko moduko panorama topatu nuen. Jonek aspalditik du Haritz buruan bueltaka eta gau hau aprobetxatu nahi du behingoagatik bere maitasun infinitua deklaratzeko. Haritzek berriz Eneko du desira, eta harkez



du nahi konturatu. Enekok atzo Laida baztertu egin zuen eta gaurkoan edozeinekin egingo luke txortan azken horrek.

Burmuina omen da energia gehien kontsumitzen duen giza organoa. Nik sinesten. Hura zen hura energia gastu alferrikakoa

horren azalera txikian! Buruari eragin eta eragin eta gutxi egin zuen ekin tzarako aukera ordu txiki haietan. Oso gutxi. Zerbait lortu nahi duenak lana egin behar duela, sekulako egia. Euskaldunak langileak garela berriz, gezurra galanta. Sexu bikotearen bilaketarako alferfrontzi koadrila bat garela ere frogatu zidan aurreko gau horrek.

Errematatze, parrandaren ajeak lagundutako astelehena erabili ohi dugu, ez ligatzearen arrazoiak zenbatzeko. Hobe esanda, gure alferkeria zuritzeko aitzakia bila jarduteko. Pentsa, nik ere Zientzia erabili behar izan dut gaztetxean estalketarako bikoterik aurkitu ez nuela zuei azaltzeko.

**Zerbait lortu nahi duenak  
lana egin behar duela,  
sekulako egia.  
Euskaldunak langileak  
garela berriz, gezurra  
galanta**

**URAITZ**  
*Lurrinlogia*  
*teknologia*

Enlaka, 3 - Tfn: 943 83 28 97

**XABIER URRETABIZKAIA**

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Atezain automatikoak

60 urte zerbitzua ematen

☎ 943 83 17 74

Arantza, 31 - 20810 ORIO

**Portu**  
**ERRETEGIA**

Santa Etxe Alzola, 99  
943 89 34 04  
20809 AJA - ORIO

*Lurrik, lurraren abarrik  
mutilo erabik, erabik...*

**uranga**  
autozerbitzua

**Aliprox**

Eusko Gudari Kalea 13-15  
ORIO  
943 83 38 75

**ODITZ**

*Orriak, orriak, orriak...*

tel. 943 83 00 89

**PATXI OLIDEN**

Hemengo haragia.  
Etxeko produktuak: tripa, odaki,  
txakorra, txakro, krakak...

Eusko Gudari, 25 - Tel. 943 83 00 10

**ITZALA**

*Kartela jokatzen  
arabiar*

Ul. 943 83 12 59

Maidar Arrillaga Sarasola - 138. Kol. zenb.  
Arantza 63 - 20810 - Orio - Gipuzkoa  
Tel. 943 575 361

**oinarri**  
PODOLOGIA ZENTROA

Adarretatik helduta

Ander Errasti. Dantzaria

## Irribarre bat nahi dut opari



lentzero maitea: zergatik bihurtu ditugu Gabonak hain kontsumistak? Dirua da gehien estimatzen duguna, dirurik

gabe zer egingo ote genuke? Gure inguruko lagunak asko maite ditugula eta gogoan dauzkagula adierazteko, dendan dagoen gauzarik garestiena edo mila gauza merke, azkenean garesti, erosten dizkiogu.

Gauza bakarra edo agian bi erosi beharrean, sei, zazpi, zortzi eta hamabost opari jasotzen dituzten haurrak ere izango dira inguruko etxeetan. Zertarako hainbeste? Ez dakite zein nekin jolastu, batekin hasi, handik pixka batera beste batekin, geroago beste batekin, eta, azkenean, denekin aspertu eta berri bat eskatzen hasten dira, ez dute daukaten hori estimatzen. Opariak ere nolakoak diren aztertu egin behar, gaur egungo gizartea eraiki dugun modukoak, individualistak, agresiboak eta garestiak, baina badira bestelakoak ere, kooperatiboak. Azken horiek ez dira hain famatuak, nahiz eta egoeraren larritasuna ikusita, pixkanaka-pixkanaka bere tokia hartzen ari diren.

Etxean, hainbeste afari eta bazkari egiteko ordua iristen denean, harategian, arrandegian, gozotegian, fruta-dendan... dauden produkturik garestienak erosten ditugu, hobereak direlakoan. Familia eta lagun giroan bereziki nahian edo... ez dakit oraindik benetako



helburua zein duen. Otordu goxoak eta sentimentuz beterikoak, merkeak ere izan daitezke eta horrek ez luke bata edo bestea hobea egin behar. Zorionez beteriko momentua eta txokoa baldin baditugu, nahikoa dela iruditzen zait.

Horrez gain, egun distiratsu hauetan, dena hain polita ikusten dugun egun hauetan, kaleak goitik behera apaindurik, musika goxoa gure belarrietan murgilduz, aspaldiko lagunekin eta familiakoekin beste urte batez elkartzeko aukera izango dugula sentituz, etxean falta direnekin gogoratuz... oso sentimental jartzen gara, errealitatea zein den ahazten zaigula dirudi, ezer inporta ez balitzaigu bezala. Ez al da hau guztia gehiegizkoa?

Azkenean, egun hauetan, alde batera eta bestera korrika ibiltzen gara, gauza bat eta bestea erosi nahian, norabide galduan. Bi hitzetan, estresa eta kontsumoarekin definituko nituzke Gabonak.

Ospatu eta ondo pasatzeko egunak direla badakit eta ados nago, baina gaur egun daukaten zentzua okerra dela iruditzen zait, modu sinpleagoan ospatu genitzakeela uste dut, baina hori bakoitzaren esku dago.

Horregatik, Olentzero, irribarre da aurtengo nire opari eskaria mundu guztiarentzat. Azken finean, gaur egun, oraindik ere dohainik daukagun gauza gutxi horietako bat da eta, agian, gutxien erabiltzen duguna. Kanean goazenean, gero eta gutxiago begiratzen diogu elkarri eta, begiratzean, aurpegi serio eta tristeak ikusten ditut gero eta gehiago, zergatik ez egin irribarre bizitzari? Daukagun gauzarik txikiena ere handi ikusi behar dugu, gertatzen zaizkigun gauza guztiei alde positiboa bilatu eta elkar lagundu. Ni irrien laguna izango naiz, eta zu? Eta zu, Olentzero? Badakit garai honetan lan pila izango duzula Euskal Herriko etxe guztietan opariak banatzeko, nik aipatutakoak kontuan hartzea espero dut eta nola ez, irribarre txiki bat uztea etxe guztietan guztientzako. Besarkada handi bat eta datoren urtera arte!

**Egun hauetan, alde batera eta bestera korrika ibiltzen gara gauza bat eta bestea erosi nahian, norabide galduan. Bi hitzetan, estresa eta kontsumoarekin definituko nituzke Gabonak**

Nire honetan  
Lore Berasaluze

## Sanikolasetan plaza hutsik

Azer nolako pena -bai, pena - eman zidaten eszenatoki gainean zeuden lau emakume alai haiek. Sanikolasak Orion, inor ez plazan.

Eguraldia ez zen batere gozoa, eta zer! Hotz egiten zuen. Eta? Berotuko zinen dantzian, plazan. Urtero kontu berarekin bueltaka gabiltza.

*Festa herrikoien alde!* lepota dutela zenbat haur, gazte, heldu eta zahar ikusi ote ditut oraingoan. Ados ni ere, herriak sortutako jaiak itsu-itsuan emango nieke botoa. Eta non sartzan dira aipatu berri ditudan horiek guztiak plazan, frontoian edo kalez kale festa giroko ikuskizun eta ekintzak daudenean? Sofan eserita, patata zorroa hartu eta *zein festa txarrak ditugun* esanez asko, seguru.

Lau katu biltzen dira festa batzordean urtero-urtero. Herriar guztientzako jai aproposak antolatuta behar dituzte lau buruk. Hori txukun egitea lortzen badute, bejondeiela kontxo!

Ez zaizkit festa hauek gustatu. Egia. Antolaketan akats asko ikusi ditut eta programazioan zer esanik ez. Baina, errudunen bat aipatu behar ko banu, neronegandik hasiko naiz, ez naizelako festak antolatzeaz kezkatu; aurten ere *paso* egin dudalako; eta lanean aritu diren horiei guztiei errespetua, gutxienez, zor diedalako.

**SARASUA ERRETEGIA**

**Plater bereziak:**

- Arrain zopa
- Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **OKIO** Tel: 943 83 00 05 / 943 13 25 32

**libe**

dietista  
nutrizionista

libe osasuna  
Boska Gudariak, 27 (Gudari Ametzaia kalea)  
Tel: 943 282 606 - 34a Sa 64 54  
www.libe.net

DATA PERTSONALIZATUA  
OSASUN ARLOAN  
GLUKOSA TRATAMENDUA  
GORRITZ  
KOPROGIZIO  
NEURKETA  
OHKO JATEKIKASTELD  
PLANTZAZAK  
MENUB  
PLANTZAZAK

**ZATUZ  
ETA ZAINDU  
OSASUNA!**



**PUBLIZITATEA**

FISIOTERAPIA - Garbitze Arriategi eta Natalia Wieronen  
NUTRIZIONISTA - Garbitze Arriategi



**sinergia** investigación  
fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 - 685 71 85 95

**SOLOZABAL**  
autoeskola



Eusko Gudari, 30-1. ezk.  
telefon: 943 83 05 12

**PERTSIANAK**

A  
K  
O

M  
A  
Z

Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...

Tel: 943 13 29 01 | Mugikorra 600 70 52 27

arraztagia  
**MIRANDA**  
KOPAN IZAN DA

Gaitza eta, baita, eskadere...  
behar diren arazo larriak  
eragun dirikizugu

Ordaineta bidez: 1 -> 660 42 32 70 - BARAUTS

De apaitzalegia  
**MARIJO**



Neska eta  
mutulentzat

Eusko Gudari, 8 - bejo  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

Orioko  
Ogia

**ORIOGI**

OPEL OKINDEGIA  
Frontal ondoan

Tfnua: 943 83 01 89



**kutxa**

**LURDES**  
MATEALEGIA



Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

**LUXARBE**  
igeltsentza

Igeltsentza orokorra,  
denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu  
konpromisorik gabe

Lan txukuna  
eta merkea

Tfnua: 943 83 59 00



**islada**  
BESALIKO ZABALDIA

Sheila De Mignel - Sargy Cendoya

Bakarean lanetan, 2 beheko Orrio 20810  
Tel: 943 133 946  
e-maila: isladario@gmail.com

INDO

**INDO**  
Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA



Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

**LORETXU** JAKITZEN



Eusko Gudari, 18 - Tel: 943 83 00 07

**AMILIBIA**  
ONTZIOLAG, S. L.

Irudi partuzan proiektu  
eta instalazioak

gaitzailetza behar diren  
arazoentzat

Olaskoegia, 52  
34 943 83 08 29  
faxa 34 943 89 40 81  
amilibia@amilibia.com  
www.amilibia.com

Lizaso  
dekorazioa



Eusko Gudari, 48  
Tel: 943 83 02 84 Fax: 943 84 89 40

**KOLON TXIKI**  
KOLONIALETA  
JAKITZEN



Herriko Emparantza, 4  
ORIO  
Tel. 943 83 00 44

Igo zaituz haize berrietara!

**Galerna I**

943890416 - 677149934  
galerna.orio@hotmail.com





# Karkarazale, laguntzaile, iragarle eta irakurleei

## Eskerrik asko

Aurrekoa baino hobea izan dadila urte berria!

### **karkara**



Angelusa errezatzen erreboteko partidariak Zubietan (1931-12-31). MARIN

## Pilota-erakusketa ederra Kursaalean

### Kritika Jai Alai. Euskal Pilotaren Edertia

Erakusketa, Kursaalean ikusgai, urtarrilaren 9a arte.

**H**aurrikas zazute euskaraz mintzatzzen, ongi pilotan eta oneski dantzatzzen... euskal kantu ezagunetako baten hitzak dira. Hitz horien inguruan oinarritu zen Orson Welles zine zuzendaria zinerako dokumental bat egiteko. Ia ordu laurdena irauten duen dokumentala Ipar Euskal Herrian egin zuen 1955ean. Eta harribitxi bat da. Orain dela 55 urteko

Ipar Euskal Herriko herri txiki-txiki irudi zoragarriak agertzen dira; batez ere pilotari lotutako irudiak: apaizak pilotan, arrantzaleak, haur txiki-txikiak eskuz, errebotean, joko garbian... Pilota maite dugunontzat opari bat, gozagaria, eta Euskal Herria maite dutenentzat ere bai, ikusi beharrekoa.

Dokumental hori, gainera, Atano III.ak Gallastegiren kontra 1942an 22-6 galdu zuen final haren irudiak ematen dituen beste batekin ematen badizute, biak segidan, emaitza benetan ederra da.

Dokumental horiek Donostiako Kursaaletan dituzupit-

lotari eskainitako erakusketa batean. Erakusketa urtarrilaren 9a arte egongo da zabalik, eta debalde da. Merezki du Donostiara joatea goiz-edo arratsalde-pasa erakusketa ikustera. Osorik pilotaren historiari lotua dago eta denetik du: pinturak, koadroak, eskulturak, erremintak, dokumentalak... Oriotarren ekarpenak ere badira: Oteizaren eskultura bat, Salsamendi I *el tigre de Oriori* egindako elkarriketa, Salsamendi III.aren koadro bat...

Joan Donostiara, egin bisita erakusketara, ikusi, ikasi eta gozatu.

[ IÑAKI ITURAIN ]

**Ikasleak idazle**  
Ana Lukas

### Gabonak iristear dira

**N**ori ez zaio gustatzen familian bildu eta Gabonak ospatzea, turroia aurrean dela? Eta haurrek Olentzero edo Hiru Erregeen opariak irekitzen dituztenean duten aurpegi alaia ikustea?

Herrian giro polita da nabari. Beti Gabonak erregaluekin lotuta ikusten ditugu, baina beste zentzu bat ere badute, esanahi polit bat: familian edo lagunekin biltzea, eta haiekin momentu onak pasatzea.



Ez dugu ahaztu behar: herrian dagoen kolore polita argiekin, Olentzeroren eta Erregeek ekarritako jolasekin jolasean dabiltzan umeak, eta antolatzen diren beste ekintza guztiak; Herribil, tonbola...

Hori guztia kontuan hartuta, espero dut Gabon onak pasatzea eta aprobetxatzea, urtean behin bakarrik dira eta.

**Familian edo  
lagunekin biltzea,  
eta haiekin  
momentu onak  
pasatzea ere  
badira Gabonak**

**Dorromoro Denda**  
1961etik zure ondoan  
**AUKERA HANDIAGOA  
FRUTATEGIAN**  
Tel 943 83 09 37

**iñaki argazkiak  
caperochipi**  
ezkontzeko asmorik bai?  
www.ikapero.com/ezkontzak  
659378751  
ikapero@ikapero.com

**HAIZE BERRI**  
gabonak pasatzea iristear da  
Plaze konbinatuak,  
bokitak,  
harburgesak,  
racionak,  
eguneko menuak...  
ETA ETERRA ERASATEKO ZERBITZUA!  
Eskuzkoak, 100% NATURALAK, 100% BERRI



## » INKESTA

**Zer marrazki eraman behar luke Orioko festetako zapiak?**

**83** erantzun jaso ditu. **%43**ren ustez balea, **%19**k esaldiren bat jarriko luke, **%10**ek aingura, **%9**k neska-mutilen silueta, **%14**ri bost axola zaio

**HURRENGO GALDERA****Komeni al da gure herrietan etxebizitza gehiago eraikitzea?**

Erantzun ezazu [www.karkara.com](http://www.karkara.com) webgunean eta emaitza 286. Karkaran argataratuko dugu.

## » OSPAKIZUNA

**Peruarrin egun pasa**

Zaragueta Herri Eskolak antolatutako irteerari erantzunez, 110 inguru lagun izan ziren abenduaren 12an Leitzako Peruarrin, Iñaki Perurenak harriaren eta Euskal Herriaren historia eskainitako paraje ederretan gozaten. Perurenaren gidaritzapean, bi ordu eta erdi pasa zituzten Peruarrin. Harria altxatzen ere saiatu ziren bertaratutako asko. Leitzako frontoian bazkaldu zuten gero. Primerako eguna pasa zuten.

## » ZORITXARRAK!

*Bost axola garbitasuna!*

**S**anikolas festak joan ziren, bai, baina oraindik haien arrastorik gelditzen da kalean. Espaloi zein errepide, kristal zati txikiz beteta dago oinezko, txirridulari eta baita auto gidarien arriskurako.

Festak ongi pasatzeko dira eta tabernatik tabernarako bira egiten du askok horretarako, baita tabernatik kanpora tragoa eskuan dutela atera ere; baina, behin bukatutakotan, ez al dakigu botila edo edalontzia toki egokian uzten?

Begiratzen diren kristalaren kolorearen arabera omen dira gauzak, baina festen ondoren kristalak jasotzeko adinako garbiketara egin behar dela ez ote du ba ikusten dagokionak?

**Gabon**  
TABERNA  
plater kantak pintxoak  
Tfnor: 943 83 06 09

Carmen eta Txomin  
ARRABEGIAK  
  
943 83 05 37 / 943 83 27 47

**ELKAR**  
pintura eta paperatze lanak  
zoru leunketa  
Abenduko Industriak  
943 83 08 45 / 943 83 25 86  
ZARAUTZ

**Automóviles ZARAUTZ**  
OTROK DUTEN ZU GIZAKIA  
KONKURTSU BERRI  
943 13 13 51

**IZARRA BIDEOA**  
Aritzaga 15, Orre 943 83 38 81  
Zorionak eta urte berri on!  
  
Zozketa: roomba bat  
bazkide guztien artean  
zozketatzeko.  
2011/01/05  
**10 HILABETE INTERESIK GABE!**  
hasi maitzean ordaintzen



## EZPALAK



Juan Jose Loidi bigarren Kristoa zizelkatzen. ARTXIBOKOA

# Elizako Kristo gurutziltzatua

## Oroimenaren kutxa

Orioko elizan irudi asko dago. Haietako bik egile oriotarra dute: atze aldean dauden bi Kristoek, bata gurutzean eta bestea kristalezko hilkutxan. Haien edertasuna ikustea nahikoa da egilea artista hutsa dela konturatzeko. Juan Jose Loidik egin zituen; gurutzekoa, 17 urterekin. Txikitatik nabarmendu zen arterako zuen joera eta erraztasunagatik. Eskola 13 urterekin utzi eta Andutxikirenean hasi zen lanean. Kristau tradizioko familian hazitako 17 urteko mutil arte zaleak Kristok gu-

rutzean sufritu zuen min eta herio izugarria adierazi nahi izan zuen egurrean. Ganbara batean aritu zen lan-orduz kanpo, ahal zuenean, Kristori forma ematen. Bukatuta, elizari oparitu zion. Pago-egurren egin den artelana gaur egun pipia jaten hasita dago. Baina irudia egin zueneko sentimendua ondo iltzatua dago oraindik egilearen bihotzean: *Kristo hitz egiten ari da aitarekin, hiltzen, baina bizi-rik: aita zergatik utzi nauzu?*

Emaitza eder hark beste Kristo bat ekarri zuen urte batzuetara, hilkutxan dagoen Kristo hila, orduko apaiz Jose Maria Astigarragak eskatua. Bigarrena egin aurretik, zenbait zirriborro egin zuen buztinez, eta Gineako egurra era-

bili zuen usteltzeari aurre egiteko. Lehenengoa zuzenezuzenean egin da, ez zirriborrorik ez ezer.

Kristo haien berri Jorge Oteizarengana ere iritsi zen, eta Jorge bere herriko gaztearengana hurbildu zen. Sortu berria zen Debako arte-eskolarara gonbidatu zuen, *zuek egin behar duzue euskal artea, zeinek bestela?* Baina Loidi lau senideko familiako zaharrena zen, gerra ondorengo gose-garaian, eta orduan arteak ez zuen ematen eta lanean segitu zuen, dekoradore.

Hirurogeitik gora urte igarota, orain ere elizan daude bi Kristo haiek, Orioko arte-atorraren edergarri.

[ IÑAKI ITURAIN ]

## » JAIOTAKOAK

- Xare Elortza Rubio, Orion, abenduaren 9an.
- Itxaso Ibarbia Urkola, Orion, abenduaren 9an.
- Oier Urrestilla Uranga, Orion, abenduaren 4an.

## » EZKONDUTAKOAK

- Ez da ezkontzarik egon.

## » HILDAKOAK

- Ramon Uranga Artola, Orion, abenduaren 11n. 52 urte.
- Joan Mari Arruti Tolosa, Aian, abenduaren 8an. 82 urte.
- Rexu Aldalur Azpiroz, Aian, abenduaren 2an. 79 urte.
- Nora Zumeta Beraetxe, Orion, abenduaren 1ean. 37 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:  
**943 83 15 27**



**Allianz** 

**Marigre Zaldua**  
aseguru agentea

Ibil Ordo: 10 behe oina  
30 telefono: 943 13 47 60  
bata: 943 83 57 52  
e-mail: zaldia@allianz.es pag@allianz.es

*edukitegia*

**ANTILLA**  
*jaletegia*

Alrederri kalea, 2 - TEL. 943 83 29 00

Kinkladenda - Uma arropa

**argine**

www.lasnet.com/argine  
Tel. 943 13 48 69

25eko DESKONTUA FAMILIA  
UGARIEN TXARTELAREKIN

**Goizeko**  
KAFETEGIA

 **943 83 28 55**

Ata Leixundi 33 behean - ORIO  
Autobus parada ondoan



KARKARA

## “Hemengoekin euskaraz komunikatu nahi dute kanpotarrek”

### Beñat Herce

Auzoko egitasmoko boluntarioa

Euskararen erabilera bultzatzeko eta, bide batez, etorkinek euskara eskurago izateko Auzoko programa jarri dute abian. Euskarazko oinarrizko ezagutzak jaso nahi dituztenei laguntzen diete boluntario euskaldunek, jolasen bidez.

#### IRATI AGIRREAZALDEGI

Eskoriatzarra da Beñat Herce, baina badira bi urte Orion bizi dela. Herrian jende on asko ezagutu duela eta hemen integratzea oso erraza dela dio. Beste batzuei pauso hori ematea errazte aldera erabaki du Auzoko programan parte hartzea.

#### Hasiak zarete Auzokorekin. Zer itxura hartu diozu egitasmolari?

Oso ona. Pentsatu nuen proiektuak kostata egingo zuela aurrera, baina arrakasta izan du; etorkinen zein euskaldun zaharren artean. Izan ere, gero eta euskaldun zahar gehiago etorri dira saioetara.

#### Zein izan da arrakasta horren arrazoia?

Uste dut egitasmoren berri ahoz aho zabaltzeak izan duela eragina. Euskara irakatsi eta partekatzea da helburua; ez da bakarrik haiei irakastea haiek ere saiatzen dira beren kultura guri transmititzen. Beraz, oso ongi pasatzen dugu, saioak jolasen bitartez egiten baititugu.

#### Elkartrukea egiten duzue, beraz. Zer eman eta zer jasotzen duzue?

Beren interes nagusia euskara ikastea da hemengo jendearekin hemengo hizkuntzan, euskaraz, komunikatu nahi dutelako. Kultura ere partekatzen dugu, ez gurea bakarrik, baita haiena ere. Esa-

terako, ostiraletan elkartzen da talde bat Senegalgo dantzak ikasteko; euskaldunak eta taldean dauden beste herrialdeetako jendea ere bai. Kontua ez da hizkuntzara mugatzen eta proiektua aurrera joan ahala gauza gehiago partekatuko dira: abestiak, sukaldaritza...

**“Euskaldunok beti egin izan dugu honela: kanpoko pertsona bat gure artean denean gaztelaniara pasatzen gara”**

“Gaur egun ez da gauza asko egiten modu boluntarioan eta horrelako gauzetan parte hartzeak norberari ere on egiten dio”

#### Herriari zer emango dio Auzokok?

Euskaldunok beti egin izan dugu honela: kanpoko pertsona bat gure artean denean gaztelaniara pasatzen gara. Ez gara gai pertsona horri oinarrizko gauzak erakusteko eta Euskal Herrian denok euskaraz komunikatzea ahalbidetzeko. Proiektu honek hori emango dio herriari. Parte hartzen ari direnek elkar ezagutuko dute eta baita herritarrak ere, beraz, kalean elkartuz gero gutxienez agurtu eta hitz batzuk euskaraz egingo ditugu. Hori denon onerako da.

#### Zaila al da euskara irakastea?

Boluntarioak koordinatzailearekin elkartzen gara saioa hasi aurretik, zer eta nola landuko dugun jakiteko. Agurrak, aurkezpenak, koloreak, zenbakiak... oinarrizko hitz eta esamoldeak, egunerokotasunean erabiltzen direnak ikasten ditugu. Gehienek oinarrizko hitzak dakizkitez, beraz, helburua da hori barnerratzea eta zuzentzea, batzuetan ez baitaude ziur esaldiak ongi esaten dituzten ala ez. Astean saio bat egitekoak ginen, baina ikasi nahi dutenek bi egitea proposatu digute eta hala izango dira astearte eta ostegunetan. Euskaldun zaharren kopuruak ere gora egin du, beraz, txandaka ibiliko gara. Hiru hilabeteko proba egingo da, baina oraingo martxan aurrera jarraitzeko modua dagoela uste dugu.

#### Nola animatuko zenuke jendea parte hartzera?

Ahoz aho zabaltzen ari da eta euskaldun zahar zein berriak animatu dira eta giro polita ikusi dutenez, lehen aldiz etorri denak errepikatu egin du. Jendeari esango nioke ondo datorrigula beste kultura batzuetako pertsonak ezagutzeko eta elkarri gauzak emateko. Gaur egun ez da gauza asko egiten modu boluntarioan eta horrelako gauzetan parte hartzeak norberari ere on egiten dio.

## ZERBITZUAK

## » AZOKA

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

## Errenta

■ Pisukide bila nabil, Orioko Abeslari kaleko etxe batean bizitzeko. Tf: 691 31 22 40 (Jon).  
 ■ Orion errentan hartzeko pisu bila nabil, urte osorako. Dei ezazu 676 28 25 88 edo lan orduetan, 943 83 15 18 telefono zenbakieta-  
 ra.  
 ■ Etxe txiki bat emango nuke errentan Aian, kas-  
 kotik 50 metrora. 635 71 88 38

## Salgai

■ Garaje bikoitza salgai Erribera kalean. 38 metro koadro. 63.000 euro. Tf: 636 38 66 63 / 607 58 08 41.  
 ■ Duplexa salgai Arrantzale kalean. Tf: 670 90 04 23.  
 ■ Etxea salgai Eusko

Gudarin. Handia eta go-  
 xoa da eta ganbara ederra  
 ere badu. Tf: 639 20 27 64.

## Galdutakoak

■ Urtebeteko haurraren txaleko urdin argia galdutzaizaidan azaroaren 8ko goizean. Bateren batek jaso badu, dei diezadala, arren 677 84 33 23 telefono zenbakira.

## Lan eskaintzak

■ Txotx garaian lan egingo duen emakume euskalduna behar da Usurbilgo sagardotegi batean. Autoa izatea beharrezkoa da. Tf: 619 403 691.  
 ■ Neska arduratsua eskaintzen da etxeak garbitzeko edo edadetuak zain-  
 tzeko. Eskarmentua dau-

kat. Deitu: 600 07 46 86.

■ Desbrozadorekin lur-sailak garbitzen ditut. Prezio oneko zerbitzu txukuna. Tf: 697 750 196.

■ LH eta DBHko lehen zikloko ikasleei klase partikularak emateko prest dago batxilergo ikaslea. Interesatuak deitu 600 39 02 38ra (Goiuri).

■ Ingeniari teknikoak haur eta gaztetxoentzat klase partikularak eskaintzen ditu. 608 16 49 71 (Amaia).  
 ■ Orion bizi den emakume marokorrek lan egin nahiko luke etxeak edo lokalak garbitzen, edadetuak zaintzen edo jatetxe edo taberna bateko sukaldetan laguntzen. Garbiketlanetan eskarmentua badu. Tf: 667 91 53 98.

## » ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
17	01:05 eta 13:28	07:19 eta 19:39	
18	01:51 eta 14:14	08:03 eta 20:23	
19	02:31 eta 14:55	08:42 eta 21:03	
20	03:09 eta 15:34	09:20 eta 21:42	
21	03:46 eta 16:13	09:58 eta 22:21	
22	04:25 eta 16:53	10:37 eta 23:01	
23	05:04 eta 17:35	11:18 eta 23:42	
24	05:46 eta 18:18	12:00 eta	
25	06:30 eta 19:04	00:26 eta 12:45	
26	07:18 eta 19:54	01:13 eta 13:34	
27	08:11 eta 20:50	02:05 eta 14:29	
28	09:12 eta 21:54	03:03 eta 15:31	
29	10:22 eta 23:05	04:10 eta 16:41	
30	11:38 eta	05:23 eta 17:56	
31	00:17 eta 12:52	06:35 eta 19:08	

## » ZAINTZAKO BOTIKAK

## ABENDUA

■ 17an, Iriarte.  
 ■ 18tik 23ra, Lasa.  
 ■ 24tik 26ra, Barrenetxea.  
 ■ 27an, Azaldegia.  
 ■ 28an, Iriarte.  
 ■ 29an, Mutiozabal.  
 ■ 30ean, Larrañaga.  
 ■ 31n, Lasa.  
 URTARRILA  
 ■ 1ean eta 2an, Zulaika.  
 ■ 3an, Azaldegia.  
 ■ 4an, Iriarte.  
 ■ 5ean, Mutiozabal.  
 ■ 6an, Larrañaga.  
 ■ 7an, Barrenetxea.

## Azaldegia: Urdaneta, 8.

943 13 31 83 Zarautz  
 Barrenetxea: Gipuzkoa, 17.  
 943 83 23 98 Zarautz  
 Mutiozabal: Kale Nagusia, 12.  
 943 83 29 70 Zarautz  
 Larrañaga: San Frantzisko, 19.  
 943 13 38 14 Zarautz  
 Lasa: Herriko Plaza.  
 943 83 09 36 Orrio  
 Gallo: Zigordia, 17.  
 943 13 40 19 Zarautz  
 Iriarte: Zinkunegi, 15.  
 943 13 29 83 Zarautz  
 Zulaika: Bizkaia, 41  
 943 13 39 94 Zarautz

\* Urtarrilaren 1etik aurrera, gauz (22:00 - 09:00) Gallo.

## » TREN ORDUTEGIAK

## DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	5:47	6:17	6:47	7:17	7:47	8:17	8:47	9:17	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
<b>Aia-Orio</b>	<b>6:11</b>	<b>6:41</b>	<b>7:11</b>	<b>7:41</b>	<b>8:11</b>	<b>8:41</b>	<b>9:11</b>	<b>10:11</b>	<b>11:11</b>	<b>12:11</b>	<b>12:41</b>	<b>13:11</b>	<b>13:41</b>	<b>14:11</b>	<b>14:41</b>	<b>15:11</b>	<b>15:41</b>	<b>16:11</b>	<b>16:41</b>	<b>17:11</b>	<b>17:41</b>	<b>18:11</b>	<b>18:41</b>	<b>19:11</b>	<b>19:41</b>	<b>20:11</b>	<b>21:11</b>	<b>22:11</b>
Zarautz	6:19	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

## ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:08	6:38	7:08	7:38	8:08	8:38	9:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:08	19:38	20:09	21:09	22:09	22:38
<b>Aia-Orio</b>	<b>6:15</b>	<b>6:45</b>	<b>7:15</b>	<b>7:45</b>	<b>8:15</b>	<b>8:45</b>	<b>9:15</b>	<b>10:15</b>	<b>11:15</b>	<b>12:15</b>	<b>12:45</b>	<b>13:15</b>	<b>13:45</b>	<b>14:15</b>	<b>14:45</b>	<b>15:15</b>	<b>15:45</b>	<b>16:15</b>	<b>16:45</b>	<b>17:15</b>	<b>17:45</b>	<b>18:15</b>	<b>18:45</b>	<b>19:15</b>	<b>19:45</b>	<b>20:15</b>	<b>21:15</b>	<b>22:15</b>	<b>22:45</b>
Donostia	6:39	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20	

Gipuzkoan garraiatzeko begira: [www.mugitu.com](http://www.mugitu.com). Grisez dauden orduetan trenak daude asteburuetan.

## » AUTOBUS ORDUTEGIAK

## LANEGUNETAN

## DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	6:55	7:40	8:10	8:40	9:10	9:40	10:40	11:40	12:10	12:40	13:10	13:40	14:10	14:40	15:10	15:40	16:40	17:40	18:10	18:40	19:10	19:40	20:15	21:00	22:15
<b>Orio</b>	<b>7:25</b>	<b>8:15</b>	<b>8:45</b>	<b>9:15</b>	<b>9:45</b>	<b>10:15</b>	<b>11:15</b>	<b>12:15</b>	<b>12:45</b>	<b>13:15</b>	<b>13:45</b>	<b>14:15</b>	<b>14:45</b>	<b>15:15</b>	<b>15:45</b>	<b>16:15</b>	<b>17:15</b>	<b>18:15</b>	<b>18:45</b>	<b>19:15</b>	<b>19:45</b>	<b>20:15</b>	<b>20:50</b>	<b>21:35</b>	<b>22:50</b>
Zarautz	7:35	8:25	8:55	9:25		10:25	11:25	12:25	12:55	13:25	13:55	14:25	14:55	15:25		16:25	17:25	18:25		19:25	19:55	20:25	21:00	21:45	23:05

## ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:20	9:45		10:45	11:45	12:45	13:20	13:45	14:20	14:45	15:20	15:45		16:45	17:45	18:45		19:45	20:45	21:15
<b>Orio</b>	<b>6:55</b>	<b>7:25</b>	<b>7:55</b>	<b>8:25</b>	<b>8:55</b>	<b>9:30</b>	<b>9:55</b>	<b>10:30</b>	<b>10:55</b>	<b>11:55</b>	<b>12:55</b>	<b>13:30</b>	<b>13:55</b>	<b>14:30</b>	<b>14:55</b>	<b>15:30</b>	<b>15:55</b>	<b>16:30</b>	<b>16:55</b>	<b>17:55</b>	<b>18:55</b>	<b>19:30</b>	<b>19:55</b>	<b>20:55</b>	<b>21:25</b>
Donostia	7:30	8:00	8:30	9:00	9:30	10:10	10:30	11:10	11:30	12:30	13:30	14:10	14:30	15:10	15:30	16:10	16:30	17:10	17:30	18:30	19:30	20:15	20:30	21:30	22:00

Lanegunetan, grisez dauden orduetako autobusak pasatzen dira Urbiletik.

## ASTEURUETAN

## DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	8:00	9:00	10:00	11:00	12:00	13:00	14:00	15:00	16:00	17:00	18:00	19:00	20:00	21:00	22:00	23:00
<b>Orio</b>	<b>8:35</b>	<b>9:35</b>	<b>10:35</b>	<b>11:35</b>	<b>12:35</b>	<b>13:35</b>	<b>14:35</b>	<b>15:35</b>	<b>16:35</b>	<b>17:35</b>	<b>18:35</b>	<b>19:35</b>	<b>20:35</b>	<b>21:35</b>	<b>22:35</b>	<b>23:05</b>
Zarautz	8:45	8:45	9:45	10:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45	22:45	23:15

## ZARAUTZ-DONOSTIA


Zarautz	6:45	7:45	8:45	9:45	10:45	11:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45
<b>Orio</b>	<b>6:55</b>	<b>7:55</b>	<b>8:55</b>	<b>9:55</b>	<b>10:55</b>	<b>11:55</b>	<b>12:55</b>	<b>13:55</b>	<b>14:55</b>	<b>15:55</b>	<b>16:55</b>	<b>17:55</b>	<b>18:55</b>	<b>19:55</b>	<b>20:55</b>	<b>21:55</b>
Donostia	7:30	8:40	9:40	10:40	11:40	12:40	13:40	14:40	15:40	16:40	17:40	18:40	19:40	20:40	21:40	22:40

Asteburuetan, autobus guztiak pasatzen dira Urbiletik. Grisez dauden orduak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orrio arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuei buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude: [www.landabus.com](http://www.landabus.com), Tf. 943 240114 sms-a5280 zenbakira



## » AGENDA



# Herribilen seigarrena

Ohiturari jarraituz, abenduaren 30ean, herritar asko eta asko bilduko dituen hitzordua izango da 22:00etan Orioko kiroldegian: Herribil ikuskizuna. Danbolin Musika Eskolako, Harribileko, Errikotxiako, Talai Mendiko eta Auzoko egitasmoko lagunek hartuko dute parte aurtengo saioan, herritarrei bata bestearen atzetik sorpresak eskainiz: dantza, kantua, umorea, hitz-jolasak... denetik izango dugu.

### Erakusketak

■ Urtarrilaren 5ean, Erregeen Karterua. 12:00etan, plazan. Errege-Kabalgata, 18:00etan.

### Kultur etxea

■ Abenduaren 27tik urtarrilaren 7a arte Gabonetako ordua: 09:00etatik 13:00etara.

## Orio

### Musika

■ Abenduaren 18an, Oskorri, Danbolin Musika Eskolako eta Donostiako Kontserbatorioko bandekin. Prezioa: helduek 8 euro; haurrek 5 euro. 18:00etan, Karela kiroldegian.  
 ■ Abenduaren 19an, Salatxo abesbatzaren Gabonetako kontzertua. 12:45ean, elizan.  
 ■ Abenduaren 22an, Danbolin Musika Eskolako Gabonetako kontzertua. 17:30ean txikiak; 20:00etan helduak, elizan.  
 ■ Abenduaren 24an, Ikastolako, Zaraguetako eta Danbolin Musika Eskolako haur, irakasle eta gurasoen kalez kaleko kanta saioa. 10:45ean.  
 ■ Abenduaren 24an, Gabonetako kantu jira Egunsenti otxotea eta Errikotxiarekin. 18:00etan, plazan hasita.

■ Abenduaren 28an, Olaxka. 19:00ak aldera, plazan.

### Bideo emanaldiak

■ Kultur etxean izango dira.  
 ■ Abenduaren 19an, *Barriola San Adriango azeria* filma. Doan. 17:00etan.  
 ■ Abenduaren 19an eta 20an, *Izarren argia* filma. Prezioa: 3 euro. 19:00etan.  
 ■ Abenduaren 27an, *Ice Age I*. Doan. 17:00etan.  
 ■ Abenduaren 30ean, *Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Irrien lagunak*. Doan. 17:00etan.  
 ■ Urtarrilaren 4an, *Pollekee*. Doan. 17:00etan.

### Olentzero

■ Abenduaren 24an, Olentzero eta Mari Domingi haurren kartak jasotzen, Txurrunusukoen tailerrak eta Arkupekoen txokolate jatea. 16:30-19:00, plazan.

### Tonbola

■ Abenduaren 24an, ikasleen tonbola. 11:00etan, plazan.

### Lehiaketa

■ Abenduaren 29an, kantu, jantzi eta jaiotza lehiaketa eta gaztaina jana. 17:00etan, ikastolako pergolan.

### Haur parkea

■ Urtarrilaren 2an eta 3an, Gabonetako haur parkea. 10:00-13:00; 16:00-19:00, igandean; 10:00-13:00, astelohenean, Karela kiroldegian.

### Ikuskizunak

■ Abenduaren 26an, *Baso sorgindua*. Prezioa: 2,50 euro. 17:00etan, Ikastolako aretoan.  
 ■ Urtarrilaren 3an, 3 eta 10 urte bitarteko haurrentzat, *Tatxin eta Tatxan*. Prezioa: 2,50 euro. 17:00etan, Ikastolako aretoan.

## Aia

### Podologoa

■ Urtarrilaren 8an. Ordua hartzeko 943131144ra deitu.

### Gabonak

■ Abenduaren 22an, Olentzeroen etorrera. 17:00etan.  
 ■ Abenduaren 24an, auzoz auzo eta kalez kaleko kantu jira. 9:00etan eta 17:00etan.  
 ■ Abenduaren 27an, Bilboko parkera irteera. 09:30ean.  
 ■ Urtarrilaren 2an, Kaka, Koko eta Moko pailazoak. 11:00etan  
 ■ Urtarrilaren 2an, Bizarzuri. 12:00ak aldera.

**Atzeko azala:** Erregeen Kabalgatako jaiotza, 1993. Garazi Urretabizkaia eta Jon Oilden dira argazkiko haurrak.

**Iturria:** KARKARA

